# Beste zenbait Iragarpen Ofizial
# Otros Anuncios Oficiales


**LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA**

IRAGARPENA, Gizarte Ongizate Zuzendaritzarena, Bilbaoko «ERAGINTZA» Iraskundea Ongintza-Sorospen Iraskunde eta Elkarteen eta Antzeko Erakundeen Errejistroan sailkatu eta inskribatzezko espedienteari buruzkoa. 1900

**DURANGOKO UDALA**

IRAGARPENA, 1992ko ekitaldirako Durangoko Udalaren Enplegu Publikorako Eskaintza onartzeari buruzkoa dena. 1901

**DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL**

ANUNCIO de la Dirección de Bienestar Social, relativo al expediente de clasificación e inscripción en el Registro de Fundaciones y Asociaciones Benéfico-Asistenciales y Entidades Análogas de la Fundación «ERAGINTZA» de Bilbao. 1900

**AYUNTAMIENTO DE DURANGO**

ANUNCIO relativo a la aprobación de la Oferta de Empleo Público del Ayuntamiento para el ejercicio 1992. 1901


# Partikularren Iragarpenak
# Anuncios Particulares


**ARABA ETA GASTEIZKO AURREZKI KUTXA**

DEIALDIA, Ohizko Batzar Nagusiari buruzkoa. 1902

**GIPUZKOA DONOSTIA KUTXA**

IRAGARPENA, Ordezkarien Zerrenda jendaurrean jartzeari buruzkoa dena. 1902

**CAJA VITAL KUTXA**

CONVOCATORIA de Asamblea General Ordinaria. 1902

**CAJA GIPUZKOA SAN SEBASTIAN**

ANUNCIO relativo a la exposición pública de la Lista de Compromisarios. 1902


# Euskal Autonomi Elkarteko Xedapen Orokorrak
# Disposiciones Generales del País Vasco

## EKONOMIA, PLANGINTZA ETA INGURUGIRO SAILA

**658**

23/1992 DEKRETUA, otsailaren 11koa, Ekonomia, Plangintza eta Ingurugiro Sailaren egitura organikoa ezartzen duena.

Urriaren 2ko 525/1991 Dekretuz, hainbat ekintza eta egiteko izendatu zitzaizkion Ekonomia, Plangintza eta Ingurugiro Sailari. Ekintza horiek, antolaera sistema bati egokitu behar zaizkio eta artikulazio funtzional bat eman behar zaie, era honetan, ekintza eta partehartze publikoak bermatuko direla. Bestalde, partehartze horrek, operatibitatea, arrazionaitasuna eta emankortasuna, beharrezkoak ditu.

Horretarako, defendatzen den administrazio mailako antolaera ereduak, Saila banakatzen deneko hiru Sailordetzei ahalmenak ematean hartzen du oinarria. Sailordetza horiek, aldi berean, Zuzendaritzetan egituratzen dira, arlo berezi bakoitzak dituen beharren arabera. Honako hauek dira Sailordetzak: Ekonomi Sailordetza, Ekonomi Plangintza Sailordetza eta Ingurugiro Sailordetza.

## DEPARTAMENTO DE ECONOMIA, PLANIFICACION Y MEDIO AMBIENTE

**658**

DECRETO 23/1992, de 11 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Economía, Planificación y Medio Ambiente.

La asignación de áreas de actuación y funciones atribuidas al Departamento de Economía, Planificación y Medio Ambiente en virtud del Decreto 525/1991, de 2 de octubre, requiere la adecuación de las materias asignadas, a un sistema organizativo y articulación funcional que garantice una acción e intervención públicas, dotadas de la suficiente operatividad, racionalidad y eficacia.

Para ello el modelo de organización administrativa que se propugna, descansa en la atribución de facultades a las tres Viceconsejerías en que se divide el Departamento, las cuales, a su vez, se constituyen y estructuran, por Direcciones en función de cada uno de las materias específicas. Aquéllas son, la Viceconsejería de Economía, la Viceconsejería de Planificación Económica y la Viceconsejería de Medio Ambiente.

Egituraketa-eredu hau kontutan hartuz, honako egiteko hauek eman zaizkio Ekonomi Sailordetzari: Euskal Autonomi Elkartearen errealitate ekonomikoa eta Europa barruan izango duen egoera behar hainbat ezagutzea erraztuko duten egiteko guztiak batu dira Sailordetza honetan, era honetan, sektore bakoitzari buruzko erabaki publikoak hartzerakoan, arazoei antz eman eta oportunotasuna lortu ahal izateko. Eta bai Euskal Autonomi Elkarteko ihardun ekonomikoa egituratzen deneko eremu eta sektore ezberdinetan burutu behar den politika ekonomikoa bideratu ahal izateko ere.

Bestalde, Ekonomi Plangintza Sailordetzaren egitekorik nagusiena honako hau da, hots, plangintza ekonomikoa eratzea hain zuzen, nahiz plangintza hori lantzeari, nahiz zaintzeari, nahiz horren bilakaerari dagozkienetan.

Ingurugiro Sailordetzak, honako eskuduntza hauek ditu bere baitan Autonomi Estatutuan zehazten diren eskuduntzen barruan: Konstituzioko 45. atalean ematen den agindua betetzea, honako hauei dagozkienetan, hau da, «... baliabide naturalak arrazionalki erabiltzea eta ingurugiroa defendatzea eta bereoneratzea...» Eta hori, Jaurlaritzako beste Sail batzuk, arloa kontutan hartuz, izan ditzaketen beste eskuduntza batzuren kaltetan gabe. Eusko Jaurlaritzaren barruan, ingurugiroari dagozkionetan, agintea duen organua da, gai honi buruz eman diren legeak aplikatu eta bete ahal izateko. Horietaz aparte, Euskal Autonomi Elkartearen eremu barruan, Ingurugiro arloan parte hartzen duten organuen ihardun-erizpideak koordinatu eta bateratu behar ditu Sailordetza honek.

Azkenik, Eusko Legebiltzarraren apirilaren 23ko 4/1986 Legez sortutako Euskal Estatistika Erakundea, Sail honi atxikita gelditzen da. Honako hauek dira Erakunde horren egitekoak: Euskal Autonomi Elkartearen errealitate sozial eta ekonomikoari buruzko informazioak eskaintzea, errealitate horiek enpirikoki ezagutu ahal izateko eta, aldi berean, Administrazio Publiko ezberdinen ihardunerako beharrezkoak diren informaziobideak eskuartean izateko.

Ondorioz, aipatu diren arlo berriak emateak, beharrezkoa bilakatzen du, organuen birreraketa egitea eta organu horiei egitekoak izendatzea aditzera eman diren antolaketa fundamenduen arabera.

Horiek horrela, Ekonomia, Plangintza eta Ingurugiro Sailburuaren proposamenaz, Lehendakaritzak onarpena eman ondoren eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1992ko otsailaren 11n egin zuen bileran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

I. ATALBURUA.– SAILAREN EGITURA

LEHENENGO SEKZIOA.– ERAKETA OROKORRA

*1. atala.*– Urriaren 2ko 525/1991 Dekretuko 15. atalean ezartzen denaren arabera, plangintza ekonomikoa, ekonomi azterlan eta metodo, ekonomi mailako egoera eta aurrikuspenak, estatistika eta ingurugiro mailako ihardun eta egitekoak dagozkion Eusko Jaurlaritzako organu bat da Ekonomia, Plangintza eta Ingurugiro Saila.

*2. atala.*– Aurreko atalean aipatu diren arloen eskuduntzak betetzeko, honako organu hauek izango ditu

De conformidad con este modelo estructural, se han encuadrado en la Viceconsejería de Economía, todas aquellas funciones, y cometidos tendentes a facilitar un conocimiento suficiente de la realidad económica de Euskadi, y de su contexto europeo, en orden a procurar el acierto y oportunidad necesarias, en la toma de decisiones públicas de cada ámbito sectorial. Y al propio tiempo, orientar la política económica a seguir en los distintos ámbitos y sectores en que se estructura la actividad económica de Euskadi.

Por su parte, la Viceconsejería de Planificación Económica tiene encomendada como tarea principal la planificación económica, en lo que se refiere a su elaboración, seguimiento y evolución.

La Viceconsejería de Medio Ambiente, tiene atribuidas en el marco competencial del Estatuto de Autonomía, aquellas facultades tendentes a procurar el mandato constitucional del artículo 45, orientadas a «... la utilización racional de los recursos naturales y defender y restaurar el medio ambiente ...» sin perjuicio de cualesquiera otras competencias que por razón de la materia pudieran estar residenciadas en otros Departamentos del Gobierno. Es el órgano ambiental competente del Gobierno Vasco a efectos de aplicar y ejecutar la amplia legislación en esta materia, y coordinar y unificar los criterios de actuación necesarios de los órganos actuantes en materia de Medio Ambiente en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Por último, queda adscrito al Departamento, el Instituto Vasco de Estadística-Euskal Estatistika Erakundea, creado por Ley del Parlamento Vasco 4/1986, de 23 de abril, cuyas funciones y responsabilidades, se dirigen a suministrar información sobre la realidad social y económica de Euskadi, para un conocimiento empírico de tales realidades, y al mismo tiempo como soporte informativo necesario, para la actuación de las distintas Administraciones Públicas.

En consecuencia la atribución de las nuevas materias, apuntadas, puestas en relación con los fundamentos organizativos expuestos, hacen necesaria una nueva configuración de órganos y asignación de funciones a los mismos.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Economía, Planificación y Medio Ambiente, previa aprobación de la Presidencia, y deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión del día 11 de febrero de 1992,

DISPONGO:

CAPITULO I.– ESTRUCTURA DEL DEPARTAMENTO

SECCION PRIMERA.– ORGANIZACION GENERAL

*Artículo 1.*– De conformidad con lo dispuesto en el artículo 15 del Decreto 525/1991, de 2 de octubre, el Departamento de Economía, Planificación y Medio Ambiente, es el órgano del Gobierno Vasco al que corresponde como áreas de actuación y funciones la planificación económica, estudios y métodos económicos, coyuntura y previsión económicas, estadística y medio ambiente.

*Artículo 2.*– Para el ejercicio de las competencias relativas a las materias señaladas en el artículo anterior,

Ekonomia, Plangintza eta Ingurugiro Sailak:

1.– Ekonomi Sailordetza.
1.1.– Ekonomi Azterlan eta Metodoen Zuzendaritza.
1.2.– Ekonomi Egoera eta Aurrikuspen Zuzendaritza.

2.– Ekonomi Plangintza Sailordetza.
Ekonomi Plangintza Zuzendaritza.

3.– Ingurugiro Sailordetza.
3.1.– Ingurugiro Baliabideen Zuzendaritza.
3.2.– Ingurugiroaren Kalitate Zuzendaritza.

4.– Zerbitzu Zuzendaritza.

*3. atala.*– 1) Apirilaren 23ko 4/1986 Legez sortutako Euskal Estatistika Erakunde autonomoa, Ekonomia, Plangintza eta Ingurugiro Sailari atxikita gelditzen da.

2) Abuztuaren 10eko 28/1984 Dekretuz sortu zen Nerbioi, Ibaizabal, Eskualdeko Airearen Kalitatearen Batzordea eta Urdaibaiko Biosferaren Erreserbarako Patronatoa ere Sail honi atxikitzen zaizkio.

3) Urtarrilaren 10eko 28/1989 Dekretuz sortutako Euskal Autonomi Elkarteko Ingurugiro Batzordea ere Sail honi atxikita gelditzen da.

4) Azaroaren 8ko 218/1982 Dekretuz sortutako «Industri Hondakinentzako Bateango Enularaztegia» izeneko Baltzu Publikoa ere Sail honi atxikita gelditzen da.

BIGARREN SEKZIOA.– SAILBURUA ETA SAILEKO GOI-KARGUDUNAK

*4. atala.*– Ekonomia, Plangintza eta Ingurugiro Sailburuari dagokio Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeko 26. atalean ezartzen diren eskuduntzak erabiltzea eta urriaren 2ko 525/1991 Dekretuz Sail honi dagozkion egiteko eta ihardun-eremuen barruan indarrean dauden legeek ematen dizkiotenak ere bai.

*5. atala.*– Honako hauek dagozkie Ekonomia, Plangintza eta Ingurugiro Sailburuordeei:

a) Sailaren ordezkotza egitea, Sailburuaren delegazio espresuz.

b) Sailordetzaren ekintzak gidatzea, koordinatzea, bultzatzea eta gainbegiratzea.

c) Sailordetzari atxikita dauden langileen goi mailako burutza egitea.

d) Sailordetzari dagozkion ekintzei buruzko xedapen orokorren proiektuak lantzea eta, hala badagokio, Sailburuari aurkeztea.

e) Sailordetzari dagozkion zerbitzuek ongi funtzionatzeko, beharrezkoak diren zirkularrak, artezbideak eta xedapenak ematea.

f) Sailordetzaren ihardunen programazioa.

g) Sailordetzaren zuzendaritza zentruen eta Sailordetzaren pean dauden erakundeen ihardun ikuskatzea eta kontrolatzea.

h) Gainontzeko Sailekiko eta Sailordetzari atxikita dauden Erakunde eta Izaikiekiko komunikazio-organu gisa jokatzea.

el Departamento de Economía, Planificación y Medio Ambiente, se estructura en los siguientes órganos:

1.– Viceconsejería de Economía.
1.1.– Dirección de Estudios Económicos y Métodos.
1.2.– Dirección de Coyuntura y Previsión Económica.

2.– Viceconsejería de Planificación Económica.
Dirección de Planificación Económica.

3.– Viceconsejería de Medio Ambiente.
3.1.– Dirección de Recursos Ambientales.
3.2.– Dirección de Calidad Ambiental.

4.– Dirección de Servicios.

*Artículo 3.*– 1) Queda adscrito al Departamento de Economía, Planificación y Medio Ambiente, el organismo autónomo Euskal Estatistika Erakundea-Instituto Vasco de Estadística, creado por Ley 4/1986, de 23 de abril.

2) Se adscribe asimismo, a este Departamento, la Junta de Calidad del Aire de la Comarca del Nervión, Ibaizabal, constituida mediante Decreto 28/1984, de 10 de agosto y el Patronato de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai.

3) Queda adscrita, igualmente, al Departamento, la Comisión Ambiental del País Vasco, creada por Decreto 28/1989, de 10 de enero.

4) Asimismo, se adscribe la Sociedad Pública «Promotora para la Instalaciones de Tratamiento Centralizado de Resíduos Industriales/Industri Hondakinentzako Bateango Enularaztegia», formalizada su creación mediante Decreto 218/1982 de 8 de noviembre.

SECCION SEGUNDA.– EL CONSEJERO Y ALTOS CARGOS DEL DEPARTAMENTO

*Artículo 4.*– Corresponde al Consejero titular del Departamento de Economía, Planificación y Medio Ambiente, el ejercicio de las competencias establecidas en el artículo 26 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, Ley de Gobierno, y cuantas le atribuya la legislación vigente en el ámbito de las funciones y áreas de actuación que corresponden al Departamento en virtud del Decreto 525/1991, de 2 de octubre.

*Artículo 5.*– Corresponde a los Viceconsejeros del Departamento de Economía, Planificación y Medio Ambiente:

a) Ostentar la representación del Departamento por delegación expresa del Consejero.

b) La dirección, coordinación, impulso y supervisión de las actuaciones de la Viceconsejería.

c) Desempeñar la jefatura superior del personal adscrito a la Viceconsejería.

d) Elaborar, en su caso, y elevar al Consejero los proyectos de disposiciones generales en materia propia de sus actuaciones.

e) Dictar las circulares, instrucciones y disposiciones necesarias dirigidas a los servicios dependientes de la Viceconsejería, en orden a su correcto funcionamiento.

f) La programación de las actividades de la Viceconsejería.

g) Inspeccionar y controlar el funcionamiento de los centros directivos y organismos dependientes de la Viceconsejería.

h) Actuar como órgano de comunicación con los demás Departamentos y con los Organismos y Entidades que tengan relación con la Viceconsejería.

i) Indarrean dauden Legeek eman diezazkieten gainontzeko eskuduntzak, ahalmenak, prerrogatibak eta egitekoak.

*6. atala.*– Zuzendari batek egingo du Zuzendaritza bakoitzaren burutza, dagokion Sailburuordearen artezko atxekimendupean. Zerbitzu Zuzendaria, Sailburuaren pean egongo da artez. Honako egiteko hauek izango dituzte Zuzendariek:

a) Zuzendaritzako barne zerbitzuak eta lan sistemak antolatzea, Zerbitzu Zuzendaritzak arlo horretan izan ditzakeen eskuduntza orokorren kaltetan gabe.

b) Zuzendaritzako ihardunak bultzatzea, gidatzea, koordinatzea eta kontrolatzea, dagokion Sailordetzak eman diezazkien artezbideen arabera.

c) Bere agintepekoak diren gaiei dagozkienetan, onarpenaren gai izan behar duten plan edo programen proposamena egitea, horien pean dauden Organuei.

d) Legeek espreski emandakoak edo guztientzakoak direnak, Jaurlaritzako Zuzendariei oro har ematen zaizkielako.

e) Kontratazio gaiei dagozkienetan, kontratazio-organua da, indarrean dauden Legeek Zuzendariei ematen dizkieten ahalmen eta murriztapenekin.

f) Indarrean dauden Legeek eman diezazkieten gainontzeko eskuduntzak, ahalmenak, prerrogatibak eta egitekoak.

HIRUGARREN SEKZIOA.– ZERBITZU ZUZENDARIA

*7. atala.*– Honako hauek dagozkio Zerbitzu Zuzendaritzari, 6. atalean oro har ezartzen diren egitekoez aparte:

a) Sailburuari, teknika, lege eta administrazio mailako laguntza eskaintzea.

b) Saileko organu ezberdinek, Jaurlaritzako gainontzeko Sailekin eta Sailarekin harremanak dituzten Erakunde eta Izaikiekin dituzten harremanak koordinatzea, ingurugiroari buruzko gaietan izan ezik.

c) Sailaren aurrekontuak gertatze-lanak koordinatzea eta horien segimendua egitea.

d) Sailaren aholkularitza juridikoa egitea, beste Zuzendaritza batzuk berenganatuta ez dituzten aldeei dagozkienetan.

e) Jaurlaritzaren Kontseiluaren eta Ekonomi Batzordearen erizpean Sailak jarri behar dituen gaiak gertatzea eta informatzea.

f) Sailari atxikita dauden langileen kudeaketa administratiboa eta aurrekontuen segimendua egitea. Aldibaterako lankontratuak formaltzea eta horien epemugaren luzapena formaltzea horren barruan sartzen da.

g) Saileko zerbitzu orokorren antolaketa eta administrazioa eta bai Sailordetzetako eta Lurralde Ordezkaritzetako sistemak eta lan-metodoa koordinatzea ere bai.

h) Saileko informatika-aplikazioak koordinatzea eta kudeatzea, Antolaketa eta Informatika Batzorde Teknikoak eta Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi

i) Todas las demás competencias, facultades, prerrogativas y funciones que les atribuya el Ordenamiento Jurídico vigente.

*Artículo 6.*– Al frente de cada una de las Direcciones habrá un Director, bajo la dependencia directa o jerárquica del Viceconsejero correspondiente, salvo en el supuesto del Director de Servicios que dependerá directamente del Consejero, y que tendrá atribuidas las siguientes funciones:

a) La organización de los servicios internos y sistemas de trabajo de la Dirección, sin perjuicio de las competencias generales en la materia atribuída a la Dirección de Servicios.

b) El impulso, dirección, coordinación y control de las actividades de la Dirección, de conformidad con las instrucciones recibidas de la Viceconsejería correspondiente.

c) La proposición, a los Organos de los que dependa, de los planes o programas de aprobación en las materias atribuídas a su competencia.

d) Las que le atribuyan expresamente el Ordenamiento Jurídico o tengan el carácter de comunes, por venir atribuídas con carácter general a los Directores del Gobierno.

e) En materia de contratación ostenta la condición de órgano de contratación con las facultades y limitaciones que el Ordenamiento Jurídico vigente atribuye a los mismos.

f) Todas las demás facultades, prerrogativas y funciones que le atribuya el Ordenamiento Jurídico vigente.

SECCION TERCERA.– DE LA DIRECCION DE SERVICIOS

*Artículo 7.*– Corresponde a la Dirección de Servicios, además de las funciones que con carácter general se establecen en el artículo 6.º, las siguientes:

a) La asistencia técnico-jurídica y administrativa al Consejero del Departamento.

b) La coordinación de las relaciones entre los distintos órganos del Departamento con el resto de los Departamentos del Gobierno y con los Organismos y Entidades que tengan relación con el Departamento, excepto en aquellas materias relativas a medio ambiente.

c) La coordinación de la elaboración y el seguimiento del presupuesto del Departamento.

d) La asesoría jurídica del Departamento, en aquellos aspectos no asumidos por las demás Direcciones.

e) La preparación e informe de cuantos asuntos del Departamento hayan de ser sometidos al Consejo de Gobierno y Comisión Económica.

f) La gestión administrativa y seguimiento presupuestario en materia de personal adscrito al Departamento, entendiéndose incluida la formalización de los contratos laborales temporales, así como, en su caso, la formalización de la prórroga de los mismos.

g) La organización y administración de los servicios generales del Departamento, así como la coordinación de los sistemas y métodos de trabajos de las Viceconsejerías y Delegaciones Territoriales.

h) La coordinación y gestión de las aplicaciones informáticas del Departamento, sin perjuicio de las competencias de la Comisión Técnica de Organización

Garapenerako Saileko Antolaketa eta Sistema Zuzendaritzak izan ditzaketen eskuduntzen kaltetan gabe.

i) Saileko Erregistro Nagusia kudeatzea.

j) Sailaren inbertsioak, erosketak, hornidurak eta zerbitzuak kudeatzea.

k) Eta indarrean dauden Legeek eman diezazkioten egiteko guztiak.

II. ATALBURUA.- SAILORDETZAK

LEHENENGO SEKZIOA.- EKONOMI SAILORDETZA

*8. atala.*- Honako ekintza arlo hauek gidatu eta koordinatuko ditu Ekonomi Sailordetzak, Sailordetzak izendatuta dituen arloei dagozkienetan Euskal Estatistika Erakundearen iharduna koordinatu dezanaren kaltetan gabe:

a) Ekonomi Azterlanak eta Metodoak.

b) Ekonomi Egoera eta Aurrikuspenak.

*9. atala.*- Ekonomi Azterlan eta Metodoen Zuzendaritza.

Honako egiteko hauek dagozkio Ekonomi Azterlan eta Metodoen Zuzendaritzari, 6. atalean oro har ezartzen diren egitekoez aparte:

a) Ekonomiari buruzko azterlan eta informe orokorrak egitea.

b) Ekonomi gaiari buruzkoak izan eta Euskal Autonomi Elkartearen egitura ekonomikoa hobeto ezagutzeko diren azterlanak, informeak eta argitalpenak egitea, era honetan, ekonomia-politika emankorragoa eta koherenteagoa lortu ahal izateko.

c) Ekonomi arloan lan egiten duen edozein organuri laguntza teknikoa eskaintzea, Jaurlaritzak ezar dezan modura.

d) Ekonomi mailako ihardunean eragina izan eta Euskal Autonomi Elkartearen Administrazio Orokorrak gehien erabiltzen dituen azterlan guztiak koordinatzea eta gainbegiratzea, Ekonomi Batzordeak kasu bakoitzerako ezar dezanaren arabera.

e) Ikerketa ekonomikoei buruzko metodoak eta, bereziki, euskal ekonomiari, horretako sektore eta/edo segmentuei buruzko ereduak garatzea.

*10. atala.*- Ekonomi Egoera eta Aurrikuspen Zuzendaritza.

Honako egiteko hauek dagozkio Ekonomi Egoera eta Aurrikuspen Zuzendaritzari, 6. atalean oro har ezartzen diren egitekoez aparte:

a) Euskal Autonomi Elkartearen Aurrekontu Erregimenari buruzko abenduaren 20ko 31/1983 Legeko 63. atalean ezarrita egon eta Euskal Autonomi Elkartearen egoera ekonomikoari buruzko urteko informea lantzea.

b) Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzko azaroaren 15eko 4/1984 Legeko 3.2 atalean aipatu eta Euskal Autonomi Elkartearen egoera ekonomikoari eta Jaurlaritzaren politika ekonomikoari buruzko seihileko informea lantzea eta Jaurlaritzari bidaltzea.

c) Euskal Autonomi Elkarteko edo honen gain eragina izan dezakeen ekonomi egoera, bilakaera eta politikaren segimendua egitea.

e Informática y de la Dirección de Organización y Sistemas del Departamento de Presidencia, Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico.

i) La gestión del Registro General del Departamento.

j) La gestión de las inversiones, compras, sumnistros y servicios del Departamento.

k) Y todas aquellas funciones que le atribuya el Ordenamiento Jurídico vigente.

CAPITULO II .- VICECONSEJERIAS

SECCION PRIMERA.- DE LA VICECONSEJERIA DE ECONOMIA

*Artículo 8.*- La Viceconsejería de Economía, sin perjuicio de la coordinación de la actividad del Euskal Estatistika Erakundea - Instituto Vasco de Estadística en relación con las materias asignadas a la propia Viceconsejería, dirige y coordina las siguientes áreas de actuación:

a) Estudios Económicos y Métodos.

b) Coyuntura y Previsión Económicas.

*Artículo 9.*- De la Dirección de Estudios Económicos y Métodos.

Corresponde al Director de Estudios Económicos y Métodos, además de las funciones que con carácter general se establecen en el artículo 6.º, las siguientes:

a) La realización de todos los estudios e informes de carácter general de naturaleza económica.

b) La realización de estudios, informes y publicaciones sobre temas de naturaleza económica que sirvan para profundizar en el conocimiento de la estructura económica de Euskadi, con la finalidad de posibilitar una política económica eficaz y coherente.

c) El apoyo técnico a cualquier órgano que opere en el campo económico en los términos que establezca el Gobierno.

d) La coordinación y supervisión de todos los estudios con incidencia en la actividad económica generalizados por la Administración General de la Comunidad Autónoma, en los términos que pudiera establecer la Comisión Económica en cada caso.

e) Desarrollo de métodos de investigación económica, y en particular de modelos de la economía vasca y de sectores y/o segmentos de la misma.

*Artículo 10.*- De la Dirección de Coyuntura y Previsión Económica.

Corresponde al Director de Coyuntura y Previsión Económica, además de las funciones que con carácter general se establecen en el artículo 6.º, las siguientes:

a) La elaboración del informe anual sobre la situación económica de Euskadi previsto en el artículo 63 de la Ley de 31/1983 de 20 de diciembre de Régimen Presupuestario de Euskadi.

b) La elaboración y remisión al Gobierno del informe semestral sobre la situación económica de la Comunidad Autónoma Vasca y de la política económica del Gobierno a que alude el artículo 3.2 de la Ley 4/1984, de 15 de noviembre del Consejo Económico y Social Vasco - Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea.

c) El seguimiento de la situación, evolución y política económica del País Vasco, o con incidencia en el mismo.

d) Ekonomi egoerari buruzko analisiak, informeak eta argitalpenak egitea.

e) Estatu eta nazioarte mailako ekonomi egoeraren segimendua egitea.

f) Euskal ekonomiak oro har eta sektorialki izan lezakeen bilakaera ezagutzeko prebisio-teknikak erabiltzea.

BIGARREN SEKZIOA.– EKONOMI PLANGINTZA SAILORDETZA

*11. atala.–* Ekonomi Plangintza Sailordetzak, ekonomi plangintza eta eskualde eta lurralde mailako politika koordinatu eta gidatuko ditu, urriaren 2ko 529/1991 Dekretuko 2.b) atalean Lehen Lehendakariorde, Ekonomia Gaietarako Lehendakariordea eta Industria eta Energia Sailburuari ematen zaizkion eskuduntzen kaltetan gabe.

*12. atala.–* Ekonomi Plangintza Zuzendaritza.

Honako egiteko hauek dagozkio Ekonomi Plangintza Zuzendaritzari, 6. atalean oro har ezartzen diren egitekoez aparte:

1.– Plangintzari dagozkionetan.

a) Epe Ertainerako Plan Ekonomikoa formulatzea, garatzea eta lantzea, helburuak sistematikoki eta ordenatuki emanez eta horiek lortzeko burutu behar diren ekintzak finkatuz; eta horietaz aparte, plan hori betetzeko, garatzeko eta burutzeko behar den lehentasun eta denboraren araberako prebisio-sistema finkatu beharko da.

b) Ekonomi planifikazioa egiteko baliabideak gidatu, eratu eta lantzea eta plangintza horretan jasotzen diren prebisioen segimendua egiteko eta betetzen diren ala ez jakiteko ekintzak koordinatzea. Eta hori, Ogasun eta Finantza Sailak aurrekontuen programazioari dagozkionetan dituen eskuduntzen kaltetan gabe.

c) Maiatzaren 31ko 4/1990 Legean ezarri eta lurralde mailako antolaketa egiteko diren baliabideen eraketa-prozesuan parte hartzea, ekonomi mailako eragina izan eta eskualde mailako plangintzan indarra duten erabakiei dagozkienetan.

d) Jaurlaritzari laguntza teknikoa ematea eta Euskal Autonomi Elkartea kide izan dadineko gainontzeko Instituzio Publikoen ihardunen plangintza egiterakoan parte hartzea, Jaurlaritzak erabaki dezan moduan.

e) Ekonomia arloan protagonismoa duten agente sozial eta ekonomikoek parte har dezateneko formulak bultzatzea eta sustatzea, itunepeko benetako plangintza lortu ahal izateko.

2.– Eskualde mailako politikari dagozkionetan.

a) Europako politika ekonomikoaren eta, bereziki, lurralde politikaren bilakaera eta garapenari buruzko informeak Jaurlaritzari ematea.

b) Europako Elkarteak Euskal Autonomi Elkarteari Laguntzeko Programaren barruan sartzen den bigarren helburua formulatzen laguntzea, Europako Ekonomi Elkarteari buruzko uztailaren 24eko 2052/1988 Arautegian ezartzen den kooperazio eremuaren barruan.

c) Eskualde eta Gizarte mailako Birrantolaketa Planaren proposamena gidatzea, formatzea eta lantzea Euskal Autonomi Elkarterako. Eta hori, Europako Ekonomi Elkarteari buruzko uztailaren 24eko 2052/1988 Arautegiko 8.4 eta 9.8 ataletan eta Europako Ekonomi

d) La elaboración de análisis, informes y publicaciones sobre coyuntura económica.

e) El seguimiento de la coyuntura económica estatal e internacional.

f) La utilización de técnicas de previsión para estimar la posible evolución global y sectorial de la economía vasca.

SECCION SEGUNDA.– DE LA VICECONSEJERIA DE PLANIFICACION ECONOMICA

*Artículo 11.–* La Viceconsejería de Planificación Económica coordina y dirige como área la actuación de planificación económica, y política regional y territorial, sin perjuicio de las facultades conferidas en la materia al Vicepresidente 1.º y para Asuntos Económicos y Consejero de Industria y Energía en el artículo 2.b) del Decreto 529/1991, de 2 de octubre.

*Artículo 12.–* De la Dirección de Planificación Económica.

Corresponde al Director de Planificación Económica, además de las funciones que con carácter general se esteblecen en el artículo 6.º, las siguientes:

1.– En materia de Planificación.

a) Formulación, desarrollo y elaboración del Plan Económico a Medio Plazo, como expresión sistemática y ordenada de los objetivos y determinación de acciones para su consecución; con un sistema de prioridades y de previsión temporal en el cumplimiento, desarrollo y ejecución del mismo.

b) Dirigir, formar y elaborar los instrumentos de planificación económica, y coordinar las acciones de seguimiento y cumplimiento de sus previsiones, sin perjuicio de las competencias que en materia de programación presupuestaria corresponden al Departamento de Hacienda y Finanzas.

c) La participación en el proceso de formación de los instrumentos de ordenación territorial, previstos en la Ley 4/1990, de 31 de mayo, en aquellas determinaciones de trascendencia económica, con repercusión e incidencia en la planificación regional.

d) El apoyo técnico al Gobierno y la participación, en los términos que éste disponga, en la planificación de la actividad del resto de Instituciones Públicas en las que, forme parte la Comunidad Autónoma.

e) Dinamizar y promover fórmulas de participación de los agentes sociales y económicos protagonistas de la vida económica, a fin de lograr una auténtica planificación concertada.

2.– En materia de Política Regional.

a) Informar al Gobierno, sobre la evolución y desarrollo de la política económica europea y especialmente de la política regional.

b) Participación en la formulación del Marco de Apoyo Comunitario, para el País Vasco, del objetivo número dos, en el marco de cooperación previsto en el Reglamento de la Comunidad Económica Europea 2052/1988 de 24 de julio.

c) Dirección, formación y elaboración de la propuesta del Plan de Reconversión Regional y Social, en el ámbito y dimensión del País Vasco, en el marco y bajo las previsiones contenidas en los artículos 8.4 y 9.8 del Reglamento de la Comunidad Económica Europea

Elkarteari buruzko abenduaren 19ko 4254/1988 Arautegiko 2.3 atalean aipatzen diren prebisioen eremu barruan eta Lan eta Gizarte Segurantza Saileko eta horretan agintea duten organuekin elkarlana eginez.

d) Interbentzio Programak lantzea, zaintzea eta kontrolatzea, bai formazio aldian eta bai burutze aldian ere, Europako Ekonomi Elkarteari buruzko abenduaren 19ko 4254/1988 Arautegiko 3. atalean ezartzen denaren arabera. Estatuaren Administrazioarekin elkarlanean egin behar da hori, Elkarteko arau horretan ezartzen denaren arabera.

e) Barne mailako eskualde politikarako eta eskualde jakin batzutan parte hartzeko Planen kudeaketa formulatzea, garatzea eta kontrolatzea.

f) Administrazio Zentralarekiko koordinazio, kooperazio eta lankidetza harremanak, lurralde mailako politikari dagozkionetan.

HIRUGARREN SEKZIOA.– INGURUGIRO SAILORDETZA

*13. atala.*– Eusko Jaurlaritzaren ingurugiro organua da Ingurugiro Sailordetza eta honako ekintza-arlo hauek gidatu eta koordinatu beharko ditu:

a) Ingurugiroari buruzko Politika Planifikatzea eta Programatzea.

b) Ingurugiroaren kudeaketa, ingurugiroan egin daitezen ekintzen koordinakuntza eta kutsadurari aurre hartzea.

c) Ingurugiroko baliabideak babestea.

d) Uren kalitatea definitzea, babestea eta hobetzea.

*14. atala.*– Ingurugiroaren Kalitate Zuzendaritza.

Honako egiteko hauek dagozkio Ingurugiroaren Kalitate Zuzendaritzari, 6. atalean oro har ezartzen diren egitekoez aparte:

a) Kutsadurari, nahiz lurrekoari, nahiz atmosferakoari, nahiz lur barruko uretakoari, nahiz itsasokoari, aurre hartzeko, hori zaintzeko eta kontrolatzeko administrazio mailako ekintzak.

b) Hondakinen politikaren kudeaketa, hori burutzea, kontrolatzea eta ikuskatzea.

c) Kutsatuta dauden eta horiek bereoneratzeko ingurugiro-erregimen juridikoa.

d) Ihardun higuinkor, osasunkaitz, kaltekor eta arriskutsutzat sailkatuta dauden eta horiei buruzko zuzenketa neurriei buruzko ekintzetarako baimena ematea, ikuskatzea eta kontrolatzea, Eusko Jaurlaritzak dituen eskuduntzen eremu-barruan.

e) Itsasertzean, ihardunak, obrak eta instalazioak egiteko baimenak eta kontzesioak, horien eskuduntza Eusko Jaurlaritzarena izan dadinean.

f) Presatasunezko ekintzetarako neurriei aurre hartzea eta neurri horiek hartzea, ingurugiroarentzako arriskua egon dadinean.

g) Produkzio eta teknologia mailako prozesuak eta kutsadurarik urrien duten energia iturriak erabil daitezela bultzatzea, Eusko Jaurlaritzak duen industri politikarekin bat etorriz.

h) Legeek eman diezazkioten gainontzeko guztiak.

número 2052/1988, de 24 de julio, y artículo 2.3 del Reglamento, asimismo de la Comunidad Económica Europea 4254/1988, de 19 de diciembre, en colaboración con la órganos competentes del Departamento de Trabajo y Seguridad Social.

d) Elaboración, seguimiento y control, al amparo de lo dispuesto en el artículo 3 del Reglamento de la Comunidad Económica Europea 4254/1988, de 19 de diciembre, de los Programas de Intervención, tanto en el proceso de su formación, como en el de ejecución; todo ello en el marco de cooperación con la Administración del Estado, previsto en la citada norma comunitaria.

e) Formular, desarrollar y controlar en su gestión los Planes de política regional interna, de intervención en espacios territoriales determinados.

f) Relaciones de coordinación, cooperación y colaboración con la Administración Central en materia de política regional.

SECCION TERCERA.– DE LA VICECONSEJERIA DE MEDIO AMBIENTE

*Artículo 13.*– La Viceconsejería de Medio Ambiente es el órgano ambiental del Gobierno Vasco, y dirige y coordina las siguientes áreas de actuación:

a) Planificación y Programación de Política Ambiental.

b) Gestión del medio ambiente, coordinación de las actuaciones medioambientales y prevención de la contaminación.

c) Protección, de los recursos ambientales.

d) Definición, protección y mejora de la calidad de las aguas.

*Artículo 14.*– De la Dirección de Calidad Ambiental

Corresponde a la Dirección de Calidad Ambiental, además de las funciones que con carácter general se establecen en el artículo 6.º, las siguientes:

a) Las actuaciones administrativas referentes a la prevención, vigilancia y control de la contaminación tanto en el ámbito terrestre, atmosférico, acuático continental como marino.

b) La gestión, ejecución, control e inspección de la política de resíduos.

c) El régimen jurídico medioambiental de los suelos contaminados y su regeneración.

d) La autorización, inspección y control de las actividades clasificadas (actividades molestas, insalubres, nocivas y peligrosas) y sus medidas correctoras, en el ámbito competencial del Gobierno Vasco.

e) Las autorizaciones y concesiones de actividades, obras e instalaciones en el medio litoral, cuya competencia corresponde al Gobierno Vasco.

f) Prevención y adopción de medidas de actuación de urgencia, en el caso de riesgo medioambiental.

g) Fomento de procesos productivos y tecnológicos, y de la utilización de fuentes energéticas menos contaminantes, en coordinación con la política industrial del Gobierno Vasco.

h) Y todas aquéllas que le atribuya el Ordenamiento Jurídico.

*15. atala.*– Ingurugiro Baliabideen Zuzendaritza.

Honako egiteko hauek dagozkio Ingurugiro Baliabideen Zuzendaritzari, 6. atalean oro har ezartzen diren egitekoez aparte:

a) Ingurugiro gaiari buruzko arau-proiektuak lantzea.

b) Plan Hidrologikoei buruz eta horien alde bakoitzari dagozkionetan proposa edo ezarri daitezen ingurugiro-xedapenak formulatzea, Plan horiek gertatzea arautu dezan prozeduraren arabera eta 29/1985 Legeko 13.3 eta 38.4 ataletan jasotzen diren printzipioekin bat etorriz.

c) Plangintza Hidrologikoa egiteak ekarri ditzan obrek Ingugiroaren gain duten Eragina aztertzea.

d) Uren kalitatea definitzea, babestea, ikuskatzea eta kontrolatzea.

e) Uren kalitatearekin lotura duten erabilpen eta baimenei buruzko arazoak.

f) Euskal Itsasertzeko kontinente edo lurralde mailako uretara industri eta kutsaduradun isurkinen definizioa eta tratamendua.

g) Ingurugiroa babesteko bide emango duen lurralde mailako antolaketa egiteko bide emango duen ingurugiro-datuei buruzko base bat lantzea.

h) Ingurugiroaren gaineko Eraginari buruzko arauak lantzea.

i) Ingurugiro baliabideak babestea.

j) Ingurugiroari buruzko hezkuntza eta trebakuntzarako politika orokorra lantzea, bultzatzea eta sustatzea.

k) Ingurugiro politika jendartean hedatzea eta arlo honi buruz gizartea sensibilizatzea eta gai honetan biztanlegoak parte har dezan bultzatzea.

l) Legeek eman diezazkioten gainontzeko guztiak.

GEHIGARRIZKO XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Euskal Autonomi Elkarteko Ingurugiro Agentzia sortu dadin arte, Ingurugiro Lurralde-Ordezkari bat izango du Lurralde Historiko bakoitzak. Honen buru Lurralde Ordezkaria izango da. Eta hau, Sailburuaren artezko eta hierarkiazko zuzendaritzapean egongo da eta, funtzionalki, Ingurugiro Sailordetzaren pean. Bere ekintzen lurralde eremu barruan, betearazte-egitekoak izango ditu Sailaren agintepekoak diren ingurugiro-gaietan, egiteko horiek, Dekretu bidez, beste organu bati emanda ez baldin badaude behintzat.

*Bigarrena.*– Sailburuorde, Zuzendari eta Ordezkarien karguak, hutsik egotea, ez egotea edo gaisorik egotea gertatuz gero, hierarkikioki horien gainetik dagoenak beteko ditu horien egitekoak eta eskuduntzak, egoera horrek iraun dezan bitartean eta Sailburuak erabaki espresurik eman ez dezan bitartean.

*Hirugarrena.*– Ingurugiroari dagozkionetan Saileko organuek izendatuta dituzten egitekoak, Jaurlaritzak dituen eskuduntzen eremuen barruan sartzen direla ulertuko da eta Industria eta Energia Sailak, Osasun Sailak, Garraio eta Herrilan Sailak eta Nekazaritza eta Arrantzu Sailak izendatuta dituzten ekintza eremuen kaltetan gabe.

*Artículo 15.*– De la Dirección de Recursos Ambientales

Corresponde a la Dirección de Recursos Ambientales, además de las funciones que con carácter general se establecen en el artículo 6.º, las siguientes:

a) La elaboración de los proyectos normativos en materia de medio ambiente.

b) La formulación de las determinaciones medioambientales que se propongan o establezcan respecto de los Planes Hidrológicos y en cada una de sus fases, según el procedimiento que regule la elaboración de dichos Planes, de conformidad con los principios recogidos en los artículos 13.3 y 38.4 de la Ley 29/1985.

c) La consideración del Impacto Ambiental en las obras que se deriven de la ejecución de la Planificación Hidrológica.

d) Definición, protección, inspección y control de la calidad de las aguas.

e) Las cuestiones referentes a usos y autorizaciones que tengan relación con la calidad de las aguas.

f) Definición y tratamiento de los vertidos industriales y contaminantes tanto en aguas continentales como territoriales del litoral vasco.

g) La elaboración de una base de datos ambientales que facilite una ordenación territorial acorde con la protección del medio ambiente.

h) La ejecución de la normativ , en materia de Impacto Ambiental.

i) La protección de los recursos ambientales.

j) La elaboración, fomento y promoción de una política general de educación y formación ambiental.

k) La difusión pública de la política ambiental, la sensibilización de la sociedad y el estímulo de la participación ciudadana en esta materia.

l) Y todas aquéllas que le atribuya el Ordenamiento Jurídico.

DISPOSICIONES ADICIONALES

*Primera.*– Hasta la creación de la Agencia de Medio Ambiente del País Vasco, existirá en cada uno de los Territorios Históricos una Delegación Territorial de Medio Ambiente a cuyo frente figurará el Delegado Territorial que, bajo la dependencia directa y jerárquica del Consejero y la funcional de la Viceconsejería de Medio Ambiente, ejercerá las funciones ejecutivas en materia de medio ambiente de competencia del Departamento, dentro de su respectivo ámbito territorial de actuación, que no vengan atribuídas en el presente Decreto a otros órganos.

*Segunda.*– En los casos de vacante, ausencia o enfermedad de los titulares de las Viceconsejerías, Direcciones y Delegaciones del Departamento, las funciones y competencias atribuídas a los mismos serán ejercidas, mientras dure tal situación, y en defecto de resolución expresa del Titular del Departamento, por el superior jerárquico inmediato.

*Tercera.*– Las funciones atribuidas a los órganos del Departamento en materia de Medio Ambiente, se entenderán referidas al ámbito de las competencias del Gobierno y sin perjuicio de las atribuídas en sus áreas de actuación respectivas a los Departamentos de Industria y Energía, de Sanidad, de Transportes y Obras Públicas y de Agricultura y Pesca.

INDARGABETZE XEDAPENA

Dekretu honen edukiaren aurka egon daitezen maila berdineko edo beheragoko xedapen guztiak indargabetu egiten dira eta, bereziki, Ekonomia eta Plangintza Saila organikoki eta funtzionalki egituratzen duen apirilaren 7ko 105/1987 Dekretua eta bai uztailaren 23ko 444/1991 Dekretuan Ingurugiroari buruz esaten dena ere.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Ekonomia, Plangintza eta Ingurugiro Sailburuari esku ematen zaio, Dekretu hau garatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

*Bigarrena.*– Dekretu hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 1992ko otsailak 11.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Ekonomia, Plangintza eta Ingurugiro Sailburua,
JON LARRINAGA APRAIZ.

DISPOSICION DEROGATORIA

Quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan al contenido de este Decreto y de modo especial el Decreto 105/1987, de 7 de abril, por el que se reestructura orgánica y funcionalmente el Departamento de Economía y Planificación y el Decreto 444/1991, de 23 de julio en lo previsto para el área de Medio Ambiente.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– Se faculta al Consejero titular del Departamento de Economía, Planificación y Medio Ambiente para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo del presente Decreto.

*Segunda.*– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 11 de febrero de 1992.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Economía, Planificación y Medio Ambiente,
JON LARRINAGA APRAIZ.

# Agintariak eta Langilegoa
# Autoridades y Personal

## Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak
## Nombramientos, Situaciones e Incidencias

### HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

**659**

AGINDUA, 1992ko otsailaren 27koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuarena, Hezkuntz Administraziorako Sailordetzan, 072001 kodez, Goi mailako Kargudunen Idazkari lanpostua izendapen iarezko sistemarei jarraituz betetzeko deialdia erabakitzen duena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 46.2.c) atalean eta Sail honetan hutsik dagoen lanpostu bat izendapen iarezko sistemaren bidez betetzeko deialdi publikoa iragartzen zuen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren 1992ko urtarrilaren 23ko Aginduko Laugarren Oinarri-arauean (otsailaren 7ko EHAA) xedatutakoaren arabera, honako hau

XEDATU DUT:

*Lehenengoa.*– Lide Murua Markaida andrea, Hezkuntza Administraziorako Sailordetzan, 072001 kodez, Goi mailako Kargudunen Idazkari izendatu da.

*Bigarrena.*– Lanpostuaz jabetu dadin egunean hasita izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak izendapen honek.

### DEPARTAMENTO DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

**659**

ORDEN de 27 de febrero de 1992, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se resuelve la convocatoria para la provisión, por el sistema de libre designación, del puesto de Secretaria de Alto Cargo, código 072001, en la Viceconsejería de Admistración Educativa.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 46.2.c) de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca y en la Base Cuarta de la Orden de 23 de enero de 1992 (B.O.P.V. del 7 de febrero) del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se anuncia convocatoria pública para la provisión por el sistema de libre designación, de un puesto de trabajo vacante en este Departamento,

DISPONGO:

*Primero.*– Designar a Dña. Lide Murua Markaida Secretaria de Alto Cargo, código 072001, en la Viceconsejería de Administración Educativa.

*Segundo.*– Dicho nombramiento surtirá efectos económicos y administrativos a partir de la toma de posesión.